

KULTURA ETA GARAPEN JASANGARRIA

Jasangarritasunerako gida
teorikoa eta praktikoa

UN
ETXEA

ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



LEHENDAKARITZA
Trantziak Sozialaren eta 2030 Agendaren
Itzularitza Nagusia
PRESIDENCIA
Secretaría General de Transición Social
y Agenda 2030



ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA

© UN Etxea - UNESCOrako Euskal Herriko elkarte, 2022.

Egilea: Begoña Guzmán Sánchez (UN Etxea)

UN Etxea- UNESCOrako Euskal Herriko elkarte

Isozaki Atea - Bizikidetasun plaza, Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala, Bilbo

Tel: +34 94 427 64 32

Kontaktua: info@unetxea.org

www.unetxea.org

Itzulpena: Bakun S.L.

Diseinua: Binari Comunicación

Azaleko jatorrizko irudia: Cm Norte

Material honek Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren eta Fundación Vital Fundazioaren laguntza du.

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Lan hau Creative Commons lizentziaren baitan dago. Eskuduntza-Ez komertziala-Deribaturik gabe 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-ND 4.0) Lan hau kopia, banatu eta jendarean komunikatu ahal izango duzu, baldintza hauek betez gero: Lanaren egiletza aitortu behar duzu. Ezin duzu lan hau helburu komertzialetarako erabili. Ezin duzu aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako lanik sortu.

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es>



KULTURA ETA GARAPEN JASANGARRIA

Jasangarritasunerako gida
teorikoa eta praktikoa

EDUKIAK

SARRERA	4
KULTURAREN EGINKIZUNA GARAPENERAKO LEHEN AGENDA BATERATUAN	5
KULTURA-DIMENTSIOA 2030 AGENDAN	8
EKINTZARA PASATU. KULTURA-KUDEAKETA JASANGARRIAGOA	12
GARAPENA ETA KULTURA-ESKUBIDEAK	14
INFORMAZIO-ITURRIAK	15
1. ERANSKINA. MONDIACULT 2022ren ADIERAZPENA	16
2. ERANSKINA. UNESCO ETXEAK NAZIO BATUEN KONTALARI BEREZIAREN KULTURA-ESKUBIDEEI ETA JASANGARRITASUNARI BURUZKO GAIKAKO TXOSTENARI EGINDAKO EKARPENA, KULTURA-ESKUBIDEEN ARLOAN	21



SARRERA

Garapen jasangarriak kultura-garapena barne hartu behar du

Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko UNESCOren Munduko Konferentziarik berrienean (MONDIACULT 2022), UNESCOko estatu kideetako kultura-ministroek berretsi egin zuten “kulturaren eraldaketa-efektua garapen jasangarri-rako, eta kulturak garapen jasangarri-rako” eta “garapen jasangarri-rako, bakerako eta egonkortasunerako kulturaren funtzioari emandako bultzada berria, erresilientziaren, inklusioaren eta gizarte-kohesioaren, ingurumenaren babesaren eta hazkunde jasangarri eta inklusiboaren eragile gisa. Horretarako, gizakia ardatz duen eta testuinguru bakoitzerako espezifikoak den garapena sustatu behar da, hori baita giza gizarte kulturaz oinarritzen finkatzen dituena. Gainera, kulturak alde biko eta alde anitzeko lankidetzak berritzeko eta zabaltzeko, eleaniztasuna eta bake-kultura sustatzeko eta herrialdeen barruan eta horien artean elkarrizketa eta elkartasuna errazteko duen ahalmena berresten da¹”.

Gaur egungo erronkek —klima-aldaketa, gatazka armatuak, oinarritzko eskubideen atzerakada, desberdintasunen gehikuntza, pandemiak, kontrolik gabeko urbanizazioa eta jasangarriak ez diren garapen ereduak— Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalaren lehen artikulua gogoratzen behartzen gaituzte (UNESCO, 2001):

1. artikulua. **Kultura aniztasuna, gizaki guztion ondare**

Kulturak molde desberdinak hartzen ditu espazioan eta denboran zehar Aniztasun hori gizateria osatzen duten gizatalde eta gizarteak bereizten dituzten identitateen originaltasun eta pluralismoan ikusten da. Kultura aniztasuna sormenaren, berrikuntzen eta elkartrukeen iturria da eta, ildo horretatik, nahitaezkoa giza-kiontzat, aniztasun biologikoa izaki bizidunentzat bezain beste. Beraz, gizaki guztion ondarea da, eta errekonozimendu eta babesa jaso behar du, oraingo eta geroko belaunaldien onurarako.

UNESCOk, sortu zenetik, bere konbentzio, adierazpen, txosten eta gomendioen bidez, agerian jartzen du kultura eta garapena binomio banaezina direla. UNESCOk kulturarekin, hezkuntzarekin, ezagutza zientifikoarekin, elkar ulertzearekin eta jakintzaren hedapenarekin lotzen du aurrerapena, gizarte bidezkoak, seguruagoak eta baketsuak lortzeko.

*Kultura denboran eta espazioan definitzen gaituen elementua da; gure aingura da iraganean eta orainean, eta gure zerumuga. Kultura baliabide agortezina eta berriztagarria da, testuinguru aldakorretara egokitzen da eta giza izaerari buruz hausnartzen du, batez ere imajinatze, sortze eta berritzeko gaitasunari dagokionez. **Kultura da gure ondasun publiko boteretsuena**².*

Euskadi Basque Country 2030 Agendaren hitzaurrean adierazten da tokiko agendan planteatzen diren erronka globalei aurre egiteko modua “auzolan” espiritua, hau da, guztion ongia lortzera zuzendutako elkarlana dela.

Auzolana auzokoekin lan egiteko modu propioa da, komunitatearen onurarako, erantzunkidetasunean, parte-hartzean eta lankidetzan oinarritua. Baliabide erkide ukigarri eta ukiezinak mantendu eta garatzeko balio izateaz gain, komunitateko kideen arteko kidetasun- eta aintzatespen-sentimendua indartzen laguntzen du. Funtsean landa-munduan du jatorria, baina, gaur egun, auzolana zenbait herri eta udalerritan burutzen da, eta bertan ikus daitezke haren emaitzak.

Auzolanaren balioaz, alegia, nork bere izate eta egiteko moduz, egindako aipamenak argi erakusten duenez, kultura gure izatearen parte da eta gure bizimoduak eratzen ditu: barruan hartzen ditu pertsonak beren gizatasuna adierazteko erabiltzen dituzten balioak, sinesmenak, sinesmenak, giza adierazkortasuna, hizkuntzak, jakintzak eta arteak, tradizioak, elkarreragiteko moduak, erakundeak eta bizimodua. Gizartearen balioak gainerako guztia eraikitzeke oinarria dira, eta haiek adierazteko modua, kultura. Ez da harrizkoa, beraz, “auzolan” espirituaren bidez aurre egin nahi izatea lurraldeko erronkei. Zalantzarik gabe, kultura-balioetan, tokiko prozesuetan eta garapen jasangarria egoera espezifikoetan kokatzeko modu bat da.

Berriz ere Ottoneren hitzak aipatuko ditugu; honako hau dio: *“gure belaunaldiak gizarte-kontratu berritu behar du, datozen belaunaldiei kultura-aniztasuna positiboki ikas dezaten lagundu behar die, bai konplexutasunari dagokionez, bai aberasteko gaitasun ordainezinari dagokionez. Halaber, ezagutza, historia eta tradizioen transmisioa bermatu behar du, eta, horretarako, ondarea babestu, eta elkartasun-loturak indartu behar ditu gizarte-eremu guztietan”.*

Zer egin dezakegu planetako kultura-aniztasuna bermatzeko? Eskualde bakoitzetik? Lurralde bakoitzetik? Erantzuna, agian, giza eskubideen ikuspegia txertatuko duten eta pertsona guztien, herritar guztien eta arte eta kulturako profesionalen **kultura eskubideak** betetzea bermatuko duten kultura politika sendoak diseinatzean datza. Halaber, kultura eta hari lotutako eskubideak garapen-estrategietan txertatzea funtsezkoa da 2030 Agenda kokatzeko eta Garapen Jasangarri-rako Helburuak lortzeko.

Begoña Guzmán Sánchez
Gizartea eraldatzeko kultura
UN Etxea - UNESCOko Euskal Herriko Elkarte

1 Ikus 1. eranskina. MONDIACULTeko adierazpena, 2022. Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko UNESCOren Munduko Konferentzia.

2 Ernesto Ottone R. UNESCOko Kultura zuzendariorde nagusia. UNESCOren posta, 2022ko uztaila-iraila. <https://courier.unesco.org/es/latest>

KULTURAREN EGINKIZUNA GARAPENERAKO LEHEN AGENDA BATERATUAN

Azken hamarkadetan, nazioarteko komunitateak interes handia erakutsi du garapenaren alderdi guztietan sakontzeko eta, hartara, garapenaren ulermen orokor eta osoa sustatzeko. Kultura ez da eztabaida horretatik kanpo geratu.

Kultura azken hamarkadetakoko garapen-agendetatik aztertzen badugu, egin diren kritiken artean, kultura osagaia alde batera uztea izan da nabarmenena.

2000. urtean, Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH)³ esparruan, garapenerako nazioarteko agendan kultura esplizituki onartu ez zen arren, Nazio Batuen Sistema bere osotasunean gero eta gehiago nahastu da kulturaren integrazioan, edo, gutxienez, kulturarekiko ikuspegi sentikorra sartu du bere ekintzetan. UNESCOk agindu zehatz bat du kulturaren sektorean, baina "kultura" ez da "soilik erakundearen ardura". Nazio Batuetako 15 erakunde inguruk lan egiten dute eremu horretan, baita nazio mailako programazio bateratuaren bidez ere⁴.

Gogoratu behar da 2006an "Kultura eta Garapena" gaikako leihoa ezarri zutela Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko Funtzak (MGH-F) eta Espainiako Gobernuak; 95 milioi dolarreko ekarpena egin zuen azken horrek, eta UNESCOk koordinatu zuen

leihoa. Funtsaren helburua zen garapen-politika nazionaletan kulturak garapen jasangarrian duen eragina sustatzeko inbertsioak egitea, Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) lortzeko aurrerapena bizkortzeko mundu osoan.

2009an, *Garapenerako Kulturaren UNESCOren adierazleak*⁵ plazaratu ziren. Ikuspegi berritzailea eta metodologia dokumentala zuten, datu kuantitatibo eta kualitatibo bidez, kulturak garapen prozesu nazionalen bidez duen rol multidimentsionala kalkulatzeko. UNESCOk, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-ketarekin, proiektu bat jarri zuen abian, kultura garapenerako funtsezko faktorea dela frogatzeko adierazle batzuk ezartze aldera.

Garapenerako Kulturako UNESCO Adierazleen Bateriak, 2009tik 2012ra, ikerketa-lana eta adituen bilerak konbinatzen zituen, munduko eskualde guztietako hogeit hamar herrialdetan egindako proben faseekin. Zazpi dimentsio hartzen dituzten adierazleen bidez (ekonomia, partaidetza soziala, gobernantza, komunikazioa, ondarea, hezkuntza eta genero berdintasuna), kulturaren eta garapenaren arteko harremanen irudi enpiriko eta pragmatikoa eman nahi da; izan ere, emaitzak neurtzea zaila izan daiteke horiei dagokienez.

DIMENTSIOAK	AZPIDIMENTSIOAK
Ekonomia	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura jardueren balio erantsia 2. Kultura enplegua 3. Etxetako kultura gastuak
Hezkuntza	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskolatzeko osoa, bidezkoa eta integratzailea 2. Kulturartekotasuna, kultura aniztasuna eta sormena baloratzea oinarrizko bigarren hezkuntzan 3. Kultura sektoreko profesionalak gaitzea
Ondarea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ondarearen babesa eta balorizazioa
Komunikazioa	<ol style="list-style-type: none"> 1. Adierazpen-askatasuna 2. Internetera sartzea eta erabiltzea 3. Fikziozko edukien aniztasuna telebista publikoaren programazioan
Gobernantza eta instituzionaltasuna	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura arloko arau-esparrua 2. Esparru politikoa eta instituzionala kulturaren 3. Kultura azpiegituren banaketa 4. Gizarte zibilaren partaidetza kultura programazioan
Partaidetza soziala	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura jardueretan parte hartzea 2. Konfiantza 3. Erabaki librea
Genero berdintasuna	<ol style="list-style-type: none"> 1. Genero berdintasunaren maila 2. Genero berdintasunari buruzko pertzepzioa

3 <https://www.un.org/development/desa/es/millennium-development-goals.html>

4 Ikusi Francesco Bandarinaren artikulua: "Cultura y Desarrollo en la Agenda post-2015". Hemen: UNESCO La Habana (2013). *Cultura y Desarrollo*, 9. zk. (2-5. or.) <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000221297>

5 https://es.unesco.org/creativity/sites/creativity/files/iucd_manual_metodologico_1.pdf

UNESCOren Adierazleen Bateriak hiru ardatz zituen:

1. Kultura jarduera ekonomikoaren sektore gisa;
2. kultura garapenari balio erantsi bat eransten dion eta haren eragina areagotzen duen faktore gisa; eta
3. kultura gizarte-koheziarako eta bakerako esparru jasangarri gisa, ezinbestekoa giza garapenerako.

Ekintza horrek UNESCOren ekimenari lagundu nahi zion, hau da, nazioarteko eztabaidetan eragiteko ekimenari, kulturaren balioa legitimatu eta adieraz zedin osatzen duten gizabana-koen eta gizartearen garapen integral eta jasangarriari.

NBERen MGHei buruzko Milurteko Goi-bileraren azken dokumentuak⁶, 2010ean NBERen Batzar Nagusiak bere 65. bilkuran onartutakoak, esplizituki onartzen du, lehen aldiz, kulturak Milurteko Garapen Helburuak lortzen eta garapenean izandako ekarpena, 16. eta 66. paragrafoetan:

16. Munduaren aniztasuna ere onartzen dugu, eta kultura eta zibilizazio guztiek gizateria aberasten dutela. Kulturak garapenerako duen garrantzia eta Milurteko Garapen Helburuak lortzeko egiten duen ekarpena nabarmentzen ditugu.

66. Uste dugu kulturaren dimentsioa garrantzitsua dela garapenerako. Nazioarteko lankidetzak bultzatzen dugu kulturaren arloan, garapen-helburuak lortzera bideratuta.

Urte horretan bertan mugarri bat izan zen: 2010eko abenduko Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Kultura eta Garapenari buruzko 65/166 Ebazpena, non onartzen baita kultura giza garapenaren funtsezko osagaia dela. Alegia, nortasun-, berrikuntza- eta sormen-iturri da pertsonentzat eta komunitatearentzat, eta pobreziaaren aurkako borrokan faktore garrantzitsua da, hazkunde ekonomikoa eta garapen-prozesuetan inplikazioa sustatzen baititu.

2010etik 2015era bitartean, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO), Hiri eta Tokiko Gobernu Batuekin eta gizarte zibileko beste erakunde batzuekin batera, kultura garapen jasangarriaren laugarren zutabe gisa ezartzearen alde egin zuen, garapena gizatiartzeko eta oraindik "giza garapen" eta garapen "jasangarri" horretatik urrun dauden diskurtsoak bateratzeko asmoz.

2012ko ekainean, Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (Río +20) egin zen Río de Janeiro, Brasilen. Horren emaitza *Nahi dugun etorkizuna*⁷ izeneko dokumentua izan zen, garapen jasangarria ezartzeko neurri argi eta praktikoak biltzen dituena. Konferentziak bi gai nagusi izan zituen

ardatz: ekonomia berdea garapen jasangarriaren eta pobrezia errotik kentzearen testuinguruan, eta jasangarritasuna lortzeko esparru instituzionala. Neurri ugarien artean, estatu kideek garapen jasangarriko helburuak (GJH) garatzeko prozesu bati ekitea erabaki zuten. Helburu horiek Milurteko Garapen Helburuen esperientzia kontuan hartzen zuten, eta 2015 ondorengo garapen-agendarekin bat egin beharko lukete.

Río +20 konferentziaren azken txostenean onartu zen garrantzitsua zela kulturaren interakzioa barne hartuko zuten politikak diseinatzea eta ezartzea garapenerako funtsezko sektoreetan, kultura integrala eta jasangarria izango zela ziurtatzeko. Proposamena identitate eta kultura ezberdinen errespetutik, onarpenetik eta partaidetzatik abiatzen zen. Identitate eta kultura bakoitzak ezagutza, balio eta esperientzia paregabeak jaso, eraman eta transmititu zituen, balio handikoak orainaldi eta etorkizun jasangarri eta desiragarria eraikitzeko⁸.

Azken hamarkadan, nazioarteko gertaera eta mugarri garrantzitsu batzuk izan dira kulturari eta garapenari dagokienez.

2010etik 2021era bitartean, Nazio Batuek 8 ebazpen eman dituzte kulturaren eta garapen jasangarriaren arteko lotura ukazineki buruz. Horrek erakusten du estatu kideek konpromisoa hartu dutela kultura bultzatzeko, gizarte inklusibo eta bidezkoak sortze aldera.

2013. urtean, Hangzhouko Nazioarteko Konferentziaren Azken Adierazpena onartu zen: kultura garapen jasangarriko politiken erdigunean kokatzea⁹. Adierazpen horren arabera, "garapena tokian tokiko kulturak eta testuinguruak osatzen dute, azken batean haren emaitzak ere zehazten baitituzte horiek. Beraz, kultura funtsezko laugarren printzipiotzat hartu beharko litzateke Nazio Batuen 2015 ondorengo garapen-agendan, giza eskubideekin, berdintasunarekin eta jasangarritasunarekin batera. Kultura-dimentsioa sistematikoki integratu beharko litzateke garapen jasangarriaren eta ongizatearen definizioetan, bai eta garapen-politiken eta -programen ikuskeran, neurketan eta praktika zehatzean ere. Horretarako, mundu-mailan eta nazio-mailan erakundearen arteko koordinazio-mekanismo eraginkorrak ezarri beharko dira, xede eta adierazle egokiak dituzten estatistika-esparru osoak prestatu, azterketa empirikoak egin eta gaitasunak sortu maila guztietan".

2015 osteko agenda egin aurreko eztabaidetan mugarri nabarmenak dira honako hauek: Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Kulturari eta Garapenari buruzko Goi Mailako Eztabaida Tematikoak (2013 eta 2014), Bosnia-Herzegovinan, Ekuadorren, Malin, Marokon eta Serbian egindako kontsulta nazionalak, edo 120 herrialde ingurutako gobernu kanpoko erakundeek bultzatutako "Nahi dugun etorkizunak kultura barne hartzen du" munduko kanpainaren kulturari eta garapenari buruzko online eztabaidarako plataforma (#culture2015goal).

6 <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N10/512/63/PDF/N1051263.pdf?OpenElement>

7 <https://sustainabledevelopment.un.org/content/documents/764Future-We-Want-SPANISH-for-Web.pdf>

8 Ilus Begoña Guzmanen artikulua: "Cultura y Desarrollo: un largo recorrido". Hemen: UNESCO La Habana (2013). *Cultura y Desarrollo*, 9. zk. 6-13. orr.<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000221297>

9 http://diversidadaudiovisual.org/wp-content/uploads/2013/11/final_hangzhou_declaration_spanish1.pdf

Horrek guztiak *Florentziako Adierazpena: Kultura, Sormena eta Garapen Jasangarria*¹⁰, ekarri zuen. Adierazpenean, gobernuak eskatu zitzaion "2015 osteko garapen-agendan kulturaren ekarpenari buruzko xede eta adierazle esplizituak sar zitezela, eta, bereziki, Garapen Jasangarriko Helburuei buruzko Nazio Batuen Lantalde Irekiak honako arlo hauetan proposatutako helburuen esparruan: pobrezia murriztea, hiri eta urbanizazio jasangarriak, kalitatezko hezkuntza, ingurumena eta klima-aldaketa, genero-berdintasuna eta emakumearen ahalduntzea, gizarteratzea eta adiskidetzea".

Adierazpen horretan bertan esaten denez, "garapen ekonomiko eta sozial inklusiboak kultura eta sormena gobernatzeko sistemak behar ditu, pertsonen eskakizun eta beharrei erant-

tzuteko. Kulturaren gobernantzako sistema gardenek, parte-hartzaileek eta ondo oinarrituek askotariko ahotsak hartzen dituzte barne, baita gizarte zibilekoak eta sektore pribatukoak ere, gizarteko kide guztien eskubideak eta interesak kontuan hartzen dituzten politikak formulatzeko prozesuetan. Horretarako, halaber, dagokion agintarien, sektore guztien (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) eta gobernu-maila guztien lankidetzea behar da".

Adierazpen horrek bat egin zuen Río +20n egindako baieztapenarekin: mundu naturalak eta kultura-aniztasunak garapen jasangarri orekatuari laguntzen diote ekonomian eta gizartean, eta belaunaldien orainerako eta etorkizunerako ingurumen-beharrak bermatzen ditu.

¹⁰ https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000230394_spa

KULTURA-DIMENTSIOA 2030 AGENDAN

NBEren Batzar Orokorrak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen 2015eko irailan. Pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana da, eta bake unibertsala eta justiziarako sarbidea indartzeko asmoa ere badu. Nazio Batuetako estatu kideek "Gure mundua eraldatu: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda"¹¹ izeneko ebazpena onartu zuten. Ebazpen horretan aitortzen dute gaur egungo munduko erronkarik handiena pobrezia errotik kentzea dela, eta, hori lortu gabe, ezin dela garapen jasangarririk izan.

Agendak 17 helburu planteatzen ditu, eta 169 xede integratu eta zatietan. Horiek ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloak barne hartzen dituzte. Estrategia berriak munduko garapen-programak arautuko ditu 15 urtez. Hura onartzean, estatuek konpromisoa hartu zuten hura ezartzeko behar ziren bitartekoak mobilizatzeko, bereziki pobreenen eta zaugarrienen beharretan oinarritutako aliantzen bidez

Honako hau adierazi zuten estatuek ebazpenean: *"prest gaude 2030erako mundu osoko pobrezia eta goseari amaiera emateko, herrialdeen barruko eta haien arteko desparekotasunei aurre egitera, gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak eraikitzea,*

giza eskubideak babestera, generoen arteko berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduzko sustatzera, eta planetaren eta haren baliabide naturalen babes jasangarria bermatzera".

Agendaren 17 helburuak bi urtean baino gehiagotan landu ziren; horretarako, kontsulta publikoak, gizarte zibilarekiko elkarreragina eta herrialdeen arteko negoziazioak egin ziren. Agendak konpromiso komuna eta unibertsala eskatzen du; hala ere, herrialde bakoitzak berariazko erronkei aurre egin behar dienez garapen jasangarria lortzeko, estatuek subiranotasun osoa dute beren aberastasunaren, baliabideen eta jarduera ekonomikoaren gainean, eta bakoitzak bere xede nazionalak finkatuko ditu, garapen jasangarrirako helburuei (GJH) atxikiz, Batzar Orokorrak onartutako testuaren arabera.

Munduko pobrezia amaiera emateaz gain, GJHen barruan daude, besteak beste, gosea desagerraraztea eta elikagaien segurtasuna lortzea; bizitza osasuntsua eta kalitatezko hezkuntza bermatzea; genero-berdintasuna lortzea; ura eta energia eskuratzeko aukera bermatzea; hazkunde ekonomiko jasangarria sustatzea; klima-aldaketaren aurkako presazko neurriak hartzea; bakea sustatzea eta justiziarako sarbidea erraztea.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Laguntzailea: TROLLBÄCK + COMPANY | TheGlobalGoals@trollback.com | +1.212.529.1010
Erabilienari buruzko zailtasunik baduzu, idatzi helbide honetara: cpicampaign@un.org

¹¹ <https://sdgs.un.org/es/2030agenda>

Kultura garapen jasangarriko helburuetan esplizituki sartzeko ahaleginak egin arren, azkenean ez zen lortu. Alfons Martine-llen artikulua irakurtzea gomendatzen da: *¿Por qué los Objetivos de Desarrollo Sostenible no incorporan la cultura?*, en REDS (2020) *Cultura y Desarrollo Sostenible. La dimensión cultural de la Agenda 2030*. 8 – 15. or.

Hala ere, kulturak desberdintasunak murrizteko, ingurumena babesteko, genero-berdintasuna sustatzeko eta gizarte baketsu eta integratzaileak eraikitzeke duen gaitasuna kontuan hartzen duen nazioarteko lehen agenda da. Kultura, zeharkako baliabide eta tresna gisa, funtsezkoa da 2030eko Agendan proposatzen den ideal eraldatzaile hori lortzeko.

“Gure mundua eraldatu: Garapen Jasangarriko 2030 Agenda” adierazpenaren 36. Puntuak bakarrik aipatzen ditu kulturak eta kultura-aniztasuna: *“Konpromisoa hartzen dugu kultura desberdinen arteko ulermena, tolerantzia, elkarrekiko errespetua eta munduko herritarren balio etikoak eta erantzukizun partekatua sustatzeko. Munduko natura- eta kultura-aniztasun onartzen dugu, baita kultura eta zibilizazio guztiek garapen jasangarriari lagundu diezaioketela eta hori errazteko funtsezko zeregina dutela ere”*.

Kulturak, sektore baten garapenean laguntzeaz gain, beste sektore batzuetan berez agertzen den osagaia da. Kulturaren babesa eta sustapena berez helburu garrantzitsua den arren, zeharkako ekarpena egiten diete GJH askori, besteak beste, honako alderdi hauekin zerikusia dutenei: hiri jasangarriak, lan duina eta hazkunde ekonomikoa; desberdintasunak murriztea; ingurumena; genero-berdintasunaren sustapena; berrikuntza eta gizarte baketsu eta integratzaileak.

Jomuga zehatz batzuetan, zehazki adierazten da kulturaren eta GJHen arteko lotura:

2.5 jomuga. Hemendik 2020ra, hazien, landutako landareen eta baserriko eta etxekotutako animalien eta horiei dagozkien espezie basatien dibertsitate genetikoari eustea, besteak beste, hazi-bankuak eta landare-bankuak ondo kudeatuz eta dibertsifikatuz, nazio, eskualde eta nazioarte mailan, eta baliabide genetikoaren erabilerak eta horiekin lotutako ezagutza tradizionalak eta horien banaketa justu eta bidezkoak dakartzaten onuretarako sarbidea sustatuz, nazioartean hitzartutakoaren arabera.

Sukaldaritzako praktika tradizionalak eta nekazaritza, eta artzain, arrantza, ehiza eta tokiko elikagaien zaintza sistemak belaunaldi batetik bestera transmititzen diren ezagutzetan eta praktiketan oinarritzen dira. Horrek guztiak asko lagundu dezake elikagaien segurtasunean eta elikaduran.

4.7 jomuga. Hemendik 2030era, bermatzea ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko behar diren ezagutza teoriko eta praktikoak izango dituztela, besteak beste, honako hauen bidez: garapen jasangarriko eta bizimodu jasangarriak izateko hezkuntza, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bake-kultura eta indarkeriarik eza sustatzea, munduko herritartasuna,

eta kultura-aniztasuna eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena baloratzea.

8.3 jomuga. Ekoizpen-jarduerak, lanpostu duinak sortzea, ekimena, sormena eta berrikuntza bultzatzeko politikak sustatzea, eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen formalizazioa eta hazkundea sustatzea, baita finantza-zerbitzuetarako sarbidearen bidez ere.

8.9 jomuga. Hemendik 2030era, turismo jasangarria sustatzeko politikak egitea eta martxan jartzea, lanpostuak sortu eta tokiko kultura eta produktuak sustatzeko.

11.4 jomuga. Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak areagotzea.

12.b jomuga. Garapen jasangarriaren ondorioak zaintzeko tresnak prestatu eta aplikatzea, lanpostuak sortu eta tokiko kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasangarria lortze aldera.

Halaber, kulturak beste GARAPEN HELBURU batzuei nola laguntzen dien ere aztertu dezakegu, adibidez:

5. GJH. Genero berdintasuna. Emakumeak munduko ondare izendatutako tokiak kudeatzeko postuetan parte hartzera bultzatzea, eta kultur ondarea identifikatzen parte har dezaten bultzatzea. Emakumeen rola baloratzea, baloreen eta ezagutzen transmititzaile gisa. Emakumei bizitza publikorako eta kulturaren esparrurako sarbidea bermatzea eta haien parte-hartzea bultzatzea.

6. GJH. Uraren kudeaketa jasangarria. Munduko ondareko leku batzuek, paisaia kultural gisa ezagututakoek, ureztatze-forma tradizionalak dituzte, gizakien eta naturaren arteko elkarrekin-tzaren arteko oreka ezin hobean.

10. GJH. Desberdintasunak murriztea. Desberdintasunak murriztea eta inor atzean geratzen ez dela bermatzea garapen jasangarriko helburuen lorpenaren zati integrala da. Kultura- eta hizkuntza-eskubideak eta aukera-berdintasuna bermatzea, baita kultura-bizitzan ere, funtsezkoak dira pertsona guztien gizarteratzea, ekonomia eta politika indartzeko eta sustatzeko.

13., 14. eta 15. GJHak Klimarekin, itsaspeko bizitzarekin eta lehorreko ekosistemarekin zerikusia dutenak. Ondare ez-materialen jardunbideak ezagutzea, ingurumenarekiko arduratsuak eta errespetuzkoak direnak, eta munduko ondareko guneak babestea, natura-ondareko guneak barne.

“Kulturak funtsezkoa izaten jarraitzen du klima-aldaketara arrakastaz egokitzeke. Ezinbestekoa da ezagutza tradizionalak aprobetxatzea, sistema naturalekin elkarrengaitzen eta horiek zaintzen ikasteko. Aldaketaren kultura sortzen ari da, eta tokiko eta munduko erantzunen alde egiten du horrek. Erantzun horiek lehentasuna ematen diote klima-aldaketa arintzeari eta klima-aldaketa-ara egokitzeari, kontsumo-ohiturak aldatuz, azpiegitura ekologiko berriak sortuz eta baliabideen eskuragarritasuna bidezko eran

banatuz. Kulturak bideratzen du gizarteak munduko klima-aldaketaren dimentsio guztiei ematen dien erantzuna". Nazio Batuen errelatoreak kultura-eskubideen arloan dituen kultura-eskubideei eta klima-aldaketari buruzko txostena. 2020ko abuztua¹².

Horri dagokionez, nabarmentzekoa da Klimari buruzko Nazio Batuen 2021eko Konferentziaren (COP26) adierazpena, non sinatzaileek honako hau dioten:

"Kultura eta arteak kontsumo-ereduetan islatzen dira, eta eragina dute haiengan, naturaz eta planetaz dugun kontzientzia eta ingurumenarekiko dugun harremana tarteko direla. Kulturak pertsonak lekuetara ainguratu eta beren artean lotzen ditu. Komunitateak eraikitzea eta ekintza kolektiboa izatea ahalbidetzen duten formen kohesioa sor dezake. Artistek eta kultura-ahotsek kontzientzia eta ekintza publikoak bultzatzen dituzte; haien lana tresna boteretsua izan daiteke mobilizazio klimatikorako. Irisgarritasunaren eta jendearen konfiantzaren bidez, kultura-erakundeak (museoak eta liburutegiak, esaterako), komunitateei entzuteko plataformak dira, baita kultura anitzeko eta belaunaldi arteko elkartrukerako zentroak, gaitasunak garatzekoak eta eza-gutzak trukatzekoak¹³."


16. GJH. Gizarte bidezkoak, bakezaleak eta inklusiboak sustatzea. Kultura-ondasunen legez kontrako trafikari eta kultura-ondasunak leheneratzeari buruzko hitzarmena. Bakearen kultura, aniztasunaren onarpenera, inklusioaren aldeko lana.

16.10 jomugan (Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarriko askatasunak babestea, lege nazionalekin eta nazioarteko akordioekin bat etorritik) datza liburutegiek, artxiboek eta dokumentazio-zentroek gure gizartearen garapen sozial eta gizatiarrean duten garrantzia. Eta, gainera, informaziorako sarbide hori zeharkakoa delako GJH guztiei dagokienez. Beraz, esan dezakegu, zalantzarik gabe, garrantzi handia duela liburutegiek garapen jasangarrirako helburuak lortzeko duten rola; funtsezko erakundeak dira, eta, ondorioz, 2030 Agendak sustatzen duen eragile-aliantza handi horren parte izan behar dute. Alde horretatik, nabarmentzekoa da **Euskadiko Liburutegien Sarea**¹⁴ egiten ari den lana.

17. GJH. Aliantzak. Zalantzarik gabe, premiazkoa da gobernu-erakundeen, unibertsitateen, hirugarren sektorearen, enpresaren, gizarte zibilaren eta, jakina, kultura eragileen arteko aliantza, agendak sustatzen duen garapenera lortzeko. Gainera, 17. GJH horrek adierazleen bidez gaitu, ikertu eta neurtzeko beharra aipatzen du, eta aurrera egiten jarraitu behar dugu alderdi horiei dagokienez.

2030 Agenda onartu ondoren, garapenaren kultura-dimentsioa aldarrikatzen jarraitu dute, garapen jasangarriaren laugarren zutabe gisa, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomia-aren dimentsioekin batera. Jarraian, gai horretan sakontzeko baliagarriak izan daitezkeen zenbait baliabide aurkezten ditugu.

Hiri Garapen Jasangarrirako Kulturari buruzko "Etorbizuneko Hiri Kultura" Mundu Txostena, 2016ko urrian aurkeztua Quiton (Ekuador), Etxebizitza eta Hiri Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Hirugarren Konferentzian, alegia, Habitat III konferentzian.



"Txostena esparru-dokumentu bat da, gobernuak 2030 Agenda aplikatzeko lagungarri izan dakiekeen politikari buruzkoa, eta, beraz, ekarpen garrantzitsua da Nazio Batuen baterako lanean, Hiri Agenda Berriaren esparruan. Txostenean, lehen aldiz aztertzen da kulturak hiri-garapen jasangarrirako duen funtzioa; horretarako, eskualdeetako hainbat testuingurutako egoera, joerak, mehatxuak eta aukerak aztertzen dira, eta hiri-ondare material eta ez-materialaren kontserbazioaren eta babesaren ikuspegi orokorra aurkezten da, bai eta kultura-industriak eta sormen-industriak sustatzea ere, hiri-garapen jasangarriaren oinarri gisa."¹⁵

12 <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N20/207/42/PDF/N2020742.pdf?OpenElement>

13 <https://agenda21culture.net/sites/default/files/chn-cop-26-manifesto-spanish-10.4.pdf>

14 <https://www.liburutegiak.euskadi.eus/inicio/>

15 Ikusi txostenaren laburpena gatzelaniaz: UNESCO (2016). Etorbizuneko Hiri Kultura. Hiri Garapen Jasangarrirako Kulturari buruzko Mundu Txostena. <http://unesdoc.unesco.org/images/0024/002462/246291s.pdf>

UNESCOren 2030 | Kultura Adierazleak¹⁶ zeharkako lau gai-dimentsio hartzen dituen esparru kontzeptualean oinarritzen dira: ingurumena eta erresilientzia, oparotasuna eta bizibideak, ezagutzak eta gaitasunak, eta inklusioa eta parte-hartzea. Gaikako dimentsio horietan, 22 adierazleko esparrua egin zen. Dimentsio bakoitzak metodologiaren gida teknikoan definitutako adierazleak ditu, eta adierazle bakoitzaren helburuaren deskripzioa, informazio-iturri potentzialak eta kalkulu-metodoa jasotzen ditu. 22 adierazleek, kuantitatiboek nahiz kualitatiboek, herrialde edo hiri baten egoera deskribatzen duen irudia ematen dute, garapen jasangarriaren tesuinguruan kultura-baliabideak erabiltzeari dagokionez, eta hutsuneak eta orientazio estrategikoak identifikatzen laguntzen dute.



Sormenerako politikak bir|pentsatzea: kultura ondasun publiko global gisa planteatzea¹⁷ (UNESCO, 2022) txostenak datu argigarri berriak aurkezten ditu, mundu mailan sortzen ari diren jarraibideak argitzen laguntzen dutenak. Gainera, 2030erako eta haratago mundu jasangarri bat lortzen lagunduko duten ekosistema sortzaileak bultzatuko dituzten politiketarako gomendioak ematen ditu. Txostenaren arabera, 2030 Agendarako aurrerapenaren borondatezko ebaluazio nazionalen % 13k bakarrik aitortzen dute kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena.



¹⁶ <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000373570>

¹⁷ https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000380502_spa

EKINTZARA PASATU KULTURA KUDEAKETA JASANGARRIAGOA.

HACIA UNA CULTURA SOSTENIBLE

Guía práctica para integrar la Agenda 2030 en el sector cultural



REDS RED ESPAÑOLA PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE

SDSN Spain

UN Sustainable Development Goals

2021eko martxoan, Garapen Jasangarrirako Espainiako Sareak (REDS / SDSN Spain) gidaliburu hau argitaratu zuen: *“Kultura jasangarri baterantz. 2030 Agenda kultura sektorean integratzeko gida praktikoa.”*¹⁸. Argitalpen horren bidez, REDS sareak tresna erabilgarriak eta egokituak eskaini nahi dizkie sektoreko profesionaleri, ikuspegi jasangarria izan dezaten eta jasangarritasun-irizpideak eta -adierazleak ezar ditzaten.

Beraz, lehenengo ariketa da 2030 Agenda kultura eta sorkuntza sektorerara bideratzeko, kultura ekosistema osorako orientabideak eta ekintza praktikoak barne: ikusizko arteetatik eta arte eszenikoetatik hasi eta ikus-entzunezko eta argitalpen-sektoretaraino.

Argitalpen horren bidez, kultura kudeaketa jasangarriagoa sustatu nahi da, eta erakundeak eta kultura eragileak animatu nahi dira 2030 Agenda betetzeko erantzukizuna beren gain har dezaten. Halaber, gidaliburuak hainbat proposamen eta iradokizun eskaintzen ditu, norberaren jardunari buruz go-goeta eginarazteko.

Alfons Martinell Kultura eta Garapen Jasangarriari buruzko REDS Komunitateko zuzendariak eta Marta García Haro REDS sareko zuzendari ohiak zuzendu dute proiektua. Horrez gain,

kulturan eta garapen jasangarrian adituak diren hainbat adituk parte hartu dute bertan, besteak beste, UN Etxeak.


Gidaliburuak lau kapitulu ditu. Lehenengo biek garapen jasangarriaren dimentsio kulturala eta kultura sisteman gertatzen diren loturak ulertzen laguntzen dute, eta beste biek, berriz, GJHak proiektu edo erakundearen integratzea eta aplikatzea aztertzen dute.

3. kapituluan, “Ekintzara pasatu” izenekoan, checklist gisa, hainbat arlotan aplika daitezkeen neurrien zerrenda proposatzen da, programaziotik edo kudeaketatik hasi eta kultura jardueraren garatzen den espazio fisikoetaraino.

Eta, amaitzeko, azken kapituluan, 2030 Agendarekin bat datozen kultura proiektuak erakusten dituzten zenbait azterketa-kasu jasotzen dira.

Cómo elaborar un plan de acción sostenible

A continuación, se enumeran las distintas fases para integrar y aplicar el enfoque sostenible en una institución o proyecto cultural.



Grafikoaren iturria: «Kultura jasangarri baterantz. 2030 Agenda kultura sektorean integratzeko gida praktikoa». REDS, 2021.

18 <https://reds-sdsn.es/wp-content/uploads/2021/03/REDS-Guia-Cultura-y-Desarrollo-Sostenible-2021.pdf>

“Kultura jasangarri baterantz. 2030 Agenda kultura sektorean integratzeko gida praktikoa” gidaliburuarekin jarraitzen dugu; izan ere, haren arabera, kultura eta garapena bata bestea gabe nekez uler daitezkeen bi errealitate dira. Elkarreragina dute beren funtsetik beretik. Kultura jasangarria ezinbestekoa da garapen jasangarria lortzeko. Eta hainbat arrazoi aipatzen ditu:

Zer ekarpen egiten diote garapen jasangarrirako helburuek kulturari?

- Mundua ikusteko eta ulertzeko modu berri bat eskaintzen dute; egungo testuinguruaren eskaera berrietara egokitzen dira.
- Hartzailerekiko harremana birpentsatzeko eta balizko publiko berriak identifikatzeko aukera ematen dute, politika integratzaileak garatuz.
- Berrikuntzaren, esperimentazioaren, ikerketaren eta eza-gutzaren produkzioaren bidez zerbitzu berriak sortzen laguntzen dute.
- Finantziazio-bide berriak bilatzea sustatzen dute. 2030 Agenda erreferentzia-esparru bihurtu da erantzukizun sozial korporatiboaren estrategietarako.
- Aliantza-lana bultzatzen dute interes partekatuetan elkarrekin lan egiten duten hainbat diziplinatako, kanpoko eta barneko bazkide berriekin.

Zer ekarpen egiten die kulturak garapen jasangarrirako helburuei?

- Garapen jasangarriaren ikuspegi holistikoa hartzen laguntzen du, dena lotuta baitago.
- GJHen funtsa diren balio eta bizimoduetarako eraldaketa bultzatzen du: aliantza demokratikoak, elkartasuna, aniztasunarekiko errespetua, berdintasuna, osotasun baten parte sentitzea.
- Esperimentaziorako leku bihurtzen da, narratibak aldatzeko prozesuak diseinatzeko.
- Gizartearen eta herritarren kohesiorako tresna da, eta funtsezko zeregina du pobrezia, bazterketaren eta desparekotasunen aurkako borrokan, eta ingurune naturalaren babesean edo hiri inklusiboen diseinuan.
- Herritar kritikoak izatea sustatzen du, GJHak lortzen lagunduko dieten ezagutzekin, trebetasunekin eta motibazioarekin.

GARAPENA ETA KULTURA-ESKUBIDEAK

Garapen jasangarria ezin da lortu, baldin eta giza eskubideak eta, beraz, kultura eskubideak erabat errespetatzen ez baditu. Eskubide kulturalak pertsona guztien eskubideak babesten dituzte, banaka zein komunitatean, baita pertsona-taldeenak ere, beren gizatasuna, mundu-ikuskerak eta existentziari eta garapenari ematen dioten esanahia garatzeko eta adierazteko, honako hauen bidez, besteak beste: balioak, sinesmenak, konbikzioak, hizkuntzak, ezagutzak eta arteak, erakundeak eta bizimoduak. Kultura ondarrerako eta identifikazio- eta garapen-prozesu horiek gauzatzeko bidea ematen duten balia- deetarako sarbidea ere babesten dute.

“Beraz, kultura eskubideak funtsezkoak dira pertsonak eta komu- nitateak garatzeko, ahalduzkoak eta beren identitateak kultura ekosistema jasangarri batean eraikitzeko. Kultura eskubideak garapenaren definizioaren muinean daude. Alferrikakoa da inor atzean ez uzteko helburua denon kultura eskubide kulturalak erabat errespetatu gabe eta baldintza berberak izan gabe lortuko dela pentsatzea¹⁹.”

Kultura Eskubideei buruzko Friburgo Adierazpena²⁰ kultura eskubideetarako tresna giltzarrietako bat da. Eskubide horiek bildu eta esplizitu bihurtzen ditu, zeinak dagoeneko nazioar- teko tresna askotan sakabanatuta dauden. Argitzea beha- rrezkoa da kultura-eskubideen garrantzi kulturala frogatzeko, baita gainerako giza eskubideen dimentsio kulturalena ere. Hain zuzen, adierazpenak eragile guztiak gonbidatzen ditu giza eskubide guztien dimentsio kulturala identifikatzera eta kontuan hartzera, unibertsaltasuna aniztasunaren bidez aber- rasteko, eta pertsona orok, bakarka nahiz taldean, bere egin dezan sustatzeko.

Nazio Batuetako Errelatore Bereziaren aginduak²¹, eskubide kulturalen esparruan, ez ditu kulturak edo kultura ondarea bera babesten, baizik eta **pertsona guztiak, diskriminazio- rik gabe, bizitza kulturalaren alderdi guztiak etengabe eskura izatea, horietan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera ematen duten baldintzak sustatzen ditu.**

Batzar Nagusiari egindako lehen txostenean, Alexandra Xanthaki Kultura Eskubideei buruzko Kontalari Bereziak kul- turak garapen jasangarrian duen zeregina jorratzen du²², honetarako: Garapen Jasangarriko 2030 Agendan kultura aniztasuna eta kultura eskubideak orain arte nola txertatu diren ebaluatzeko, garapen jasangarriagoa eta aurkitutako ahulguneak bilatzeko kultura balia- bideak eta eskubideak

aprobetxatzeko esperientzien balantzea egiteko, eta kultura kontzientzia handiagoari esker garapen jasangarriko helbu- ruak lortzen lagun dezaketen eremuak nabarmentzeko.

“Kultura eskubideak ezinbestekoak dira garapen jasangarriko. Garapena jasangarria izango da, soilik, ukitzen dituen pertsonen balioek eta horiek ematen dioten esanahiak modelatua bada, bere balia- bideak babesten baditu eta bere ondarea dimentsio guztietan erabiltzen badu: ukigarria, bizia eta naturala. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi bat, kultura eskubideak modu nabarmenean aintzat hartzen dituenak, edozein garapen- programarentzako esparru bat da, bai eta arrakasta-berme bat ere. Dena den, garapen jasangarriko estrategietan alde batera utzi dira kultura eskubideak. Kultura-garapena ez da garapen jasangarriaren zutabetzat hartzen, gizarte-, ekonomia- eta in- gurumen-zutabeekin batera, eta nekez neurtzen da garapenak kultura eskubideetan duen eragina.”

C akapitearen (Kontsulta eta parte-hartze betekizunak) VI. ata- lean (Erronkak eta eskubide kulturalen urraketak garapenaren izenean), 86. paragrafoan, UNESCO Etxeak txostenari egindako ekarpen hau²³ jasotzen da:

*86. Tokiko eta eskualdeetako gobernuek zuzentzen dituzten bo- rondatezko tokiko azterketak gero eta ugariagoak dira, garapen jasangarriko helburuak eraginkortasunez ezartzen laguntzen dute eta prozesuan zehar iritzi zabalagoak lortzea bermatzen dute. **Adibidez, EAEn(Espainia), Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak borondatez ematen du helburuetarako tokiko ekarpenaren berri.** Hala ere, garrantzitsua den arren, tokiko gobernuen ekarpena ez da na- barmena estatuko eta nazioarteko txostenetan.*

Errelatoreak, paragrafo horretan, Eusko Jaurlaritzaren Tran- tsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren lana aitortzen du, GJHen xedeak eta adierazleak tokiko erre- aliteratara egokitzeak; izan ere, agenda lokalizatzearen aldeko apustua da, eta oraindik ibilbide luzea dago egiteko.

Txostenean eranstean denez, *“ez da nahikoa garapena kulturalki sentikorra edo kulturalki egokia izatea, baizik eta kultura inguru- ne jakin batzuetan kokatuta egon behar du, eta erabat lerroka- tzen saiatu behar da gizabanakoen eta taldeen asmoekin, ohi- turekin, tradizioekin, sistemekin eta mundu-ikuspegiekin, baldin eta probabilitate handiagoarekin jasango badute eragina (...)* Garapen jasangarriak guztiontzako eredu bakarrari egin behar dio aurre.”

19 Kultura Eskubideei Buruzko Errelatore Bereziaren txostena, Alexandra Xanthaki. A/77/290. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N22/461/69/PDF/N2246169.pdf?OpenElement>

20 https://culturalrights.net/descargas/drets_culturals239.pdf

21 <https://www.ohchr.org/es/special-procedures/sr-cultural-rights>

22 <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N22/461/69/PDF/N2246169.pdf?OpenElement>

23 Ikusi dokumentu honen 2. eranskina.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Kultura eta garapen jasangarria. Kultura politika publikoen bidez bultzatzea. UNESCO <https://es.unesco.org/cultura-desarrollo>

Nazio Batuen errelatore berezia, kultura eskubideen eremuan. <https://www.ohchr.org/es/special-procedures/sr-cultural-rights>

Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarea (REDS) SDSNren (Sustainable Development Solutions Network) antena da Espainian. 2030 Agendaren prestakuntzan eta integrazioan lan egiten du kulturaren eta sormenaren sektorean, sortu zenetik. Kontsultatu abian jarritako ekimen guztiak hemen: <https://culturasostenible.org/>

2005ean, Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak erakundearen Kultura Batzordea sortu zen, tokiko garapen jasangarrian kultura eskubideak aplikatzeko agindu esplizituarekin, bereziki, Kulturaren Agenda 21en bidez. Hainbat ekarpenetan aipatzen da batzorde hori. Kulturaren Agenda 21 2004ko maiatzean onartu zuten giza eskubideekin, kultura aniztasunarekin, jasangarritasunarekin, demokrazia parte-hartzailearekin eta bakerako baldintzak sortzearekin konprometitutako hiri eta tokiko gobernuek. <https://www.agenda21culture.net/es>

Julie's Bicycle irabazi asmorik gabeko Londresko erakundea da, eta kultura erakundeekin lan egiten du garapenaren ingurumen arloan aurrera egiteko. <https://juliesbicycle.com/>

Kultura-politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko UNESCOren Mundu Konferentzia (MONDIACULT 2022) (Mexiko Hiria, 2022ko irailak 28-30)

Amaierako adierazpena

Gu, UNESCOko estatu kideetako kultura-ministroak, Mexiko Hirian elkartu gara 2022ko irailaren 28tik 30era Kultura-politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko UNESCOren Mundu Konferentzian, 1982ko MONDIACULT konferentzia historikotik 40 urtera eta Stockholmeko 1998ko konferentziatik 24 urtera —biak UNESCOk deituak—, kultura-politiken etorkizunari buruzko gure ikuspegia partekatzeko eta gure gizarte multikulturalen premiazko erronka konplexu eta garaikideekin nazioarteko komunitateak duen konpromisoa berresteko. Eta xede horrekin onetsi dugu adierazpen hau, zeinetan gure baterako lehentasunak jasotzen diren eta etorkizuneko programa bat planteatzen den, kulturak garapen jasangarriko duen eragin eraldatzailea erabat aprobetxatzen duena.

I. Atarikoak

1. Berresten ditugu 1982an Mexikon izandako Kultura-politikei buruzko Mundu Konferentzian onetsitako adierazpenaren funtsezko printzipioak eta 1998an Stockholmen egindako Garapenerako Kultura Politikei buruzko Gobernuen Arteko Biltzarrekoak, baita horien aurrerapen kontzeptualak ere, bereziki kulturaren definizioa: "gizarte edo gizarteko talde baten ezaugarri bereizgarriak, espiritual eta materialak, intelektual eta afektiboak, arteez eta letrez gain, bizimoduak, gizakiaren funtsezko eskubideak, balio-sistemak, tradizioak eta sinesmenak biltzen dituztenak". Izan ere, horrek finkatu zituen UNESCOren arauzko ekintzaren garapenerako oinarriak, bereziki Kultura Aniztasunari buruzko 2001eko UNESCOren Adierazpen Unibertsalarenak, zeinetan aitortzen den kultura-aniztasuna dela "trukeen, berrikuntzaren eta sormenaren iturri, [...] organismo bizidunentzat aniztasun biologikoa bezain garrantzitsua gizakiarentzat".

2. Kezkatuta gaude munduko panoramarekin zerikusia duten erronka garaikideen ondorioengatik, baita krisi anitz, luze eta dimentsio ugariengatik ere —batez ere klima-aldaketaren eta biodibertsitatea galtzearen ondorio dramatikoak, gatazka armatuak, arrisku naturalei, pandemiei, kontrol gabeko urbanizazioari eta garapen-eredu jasangaitzei lotuak—, batez ere, pobrezia areagotzen baitute, funtsezko eskubideetan atzera egitea eragiten dute, migrazioak eta mugikortasuna bizkortu

eta desberdinkeriak areagotzen dituzte, eten digitalari dago-kionez.

3. Konfiantza dugu kulturari garapen jasangarriko, bakerako eta egonkortasunerako eman zaion zeregin berrian erresilientziaren, inklusioaren eta gizarte-kohesioaren motor izan dadin, baita gizartea babesteko eta hazkunde jasangarria eta inklusiboa izateko motor izan dadin ere. Gainera, gizakia ardatz duen eta testuinguru bakoitzerako berariazkoa den garapena sustatzen dugu, kultura anitzeko gizarte oinarri eusten diena, eta kulturak alde biko eta alde anitzeko lankidetzari berritzeko eta hedatzeko duen potentziala berresten dugu, bai eta eleaniztasuna eta bakearen kultura sustatzeko eta elkarriketa eta elkartasuna bideratzeko duen potentziala ere herrialdeen barnean eta artean, diplomazia kulturalaren bidez, Nazio Batuen sistemaren esparruan, eta herrialde-mailan, kulturarekin dagoen gero eta konpromiso handiagoan islatzen den bezala, eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpenek eta Nazio Batuetako idazkari nagusiaren kultura eta garapenari buruzko txostenek eta UNESCOk deitutako kultura-ministroen bilkurek (2019 eta 2020) gogorarazten duten bezala. Halaber, kulturaren integrazio historikoa berresten dugu munduko, eskualdeko eta eskualde arteko foro politiko, ekonomiko eta sozialetan.

4. Adierazten dugu kezkatuta gaudela kultura-arloaren eten gabeko zaugarritasunagatik, bereziki COVID-19aren munduko krisiaren ondoren, erabat asaldatu baitu ekosistema kulturala oro har, egiturazko hauskortasunak eta desberdinkeriak areagotuta, gizarte eta genero arloko etenak eta kulturarako sarbide-desberdinkeria barne, eta funtsezko askatasunen murrizketa ekarri du, batez ere askatasun artistikoaren, artisten, profesionalen eta kulturako beste eragileen eta erkideen izaeraren eta bizitzeko bitartekoen murrizketa, bereziki emakumeentzat, kulturaren balio-katearen esparru guztietan.

5. Berresten dugu giza eskubideak eta kultura-aniztasuna babestu eta sustatu beharra dagoela, are gehiago azkenaldian kulturak dituen mehatxu gero eta handiagoak kontuan izanda eta gatazka armatuen testuinguruan kultura narriatu edo suntsitu dezaketen xedeetarako erabili daitekeelako, ondare kulturala nahita edo kolateraliki suntsitzen baita horrelakotan, kulturaondasunen legez kontrako trafikoa bizkortzen baita, giza eskubideak eta eskubide kulturalak urratzen baitira (baita diskriminazioaren bidez ere), praktika kultural biziak ete-

ten baitira eta kulturako eragileen, erakundeen, guneen eta merkatuen zaurgarritasuna areagotzen baita. Horrek guztiak herrien arteko lotura eta diru-sarreren iturri gisa kulturak berez duen balioa ahultzen du; oster, mundu-mailan kultura-aniztasuna urritzen du.

6. Aitortzen dugu UNESCOren arauzko sorta zabalak (adierazpenak, gomendioak eta nazioarteko konbentzioak) azken hamarkadetan izan duen eboluzioa, sorta horrek kulturaren irismena hedatu baitu pixkanaka eta kultura dimentsio guztietan babestu eta sustatzeko esparru globala eskaini du, batez ere, honako hauek: Nazioarteko Lankidetzaren Kulturaren Printzipioen Adierazpena (1966), UNESCOren Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala (2001) eta Kultura Ondarea Nahita Suntsitzeari buruzko UNESCOren Adierazpena (2003), Artistaren Izaerari buruzko Gomendia (1980), Kultura Tradizional eta Herrikoa Babesteari buruzko Gomendia (1989), Hiri Paisaia Historikoari buruzko Gomendia (2011) eta Museoak eta Bildumak, horien Aniztasuna eta Gizartean duten Funtzioa Babesteari eta Sustatzeari buruzko Gomendia (2015), Egile Eskubideei buruzko Konbentzio Unibertsala (1952), Gatazka Armatuetan Kultura Ondasunak Babesteko Hagako Konbentzioa (1954) eta haren bi protokoloak (1954 eta 1999), Kultura Ondasunen Legez Kanpoko Inportazioa, Esportazioa eta Jabetza Transferentzia Galarazteko eta Eragozteko Hartu Beharreko Neurriei buruzko Konbentzioa (1970), Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Konbentzioa (1972), Urpeko Kultura Ondarea Babesteari buruzko Konbentzioa (2001), Kultura Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioa (2003) eta Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babesteari eta Sustatzeari buruzko Konbentzioa (2005).

7. Harrera egiten diogu pozarren politika publikoetan kulturak pixkanaka zeharkakotasun handiagoa izateari, horri esker kultura-politika inklusiboagoak eta parte-hartzaileagoak egitea errazagoa baita, eragile asko bilduta —gobernuak, tokiko agintariak, gizarte zibileko erakundeak, gobernu arteko erakundeak, sektore pribatua eta komunitateak— emakumeak, gazteak, haurrak, herri indigenak, desgaitasunen bat duten pertsonak eta talde zaurgarriak barne; ondorioz, gizarteko hainbat atalen ahotsak ozenago entzuten dira eta erabat aprobetxatzen da horien potentziala, sortzeko gaitasuna eta arlo sozialean, ekonomikoan eta ingurumen-arloan aritzeko eskura dituzten baliabide guztiak, kultura-politiken esparru zabalagoan, baita adierazpen honetan esandako konpromisoak ere.

8. Azpimarratzen dugu gizarteetan, eta kulturaren sektorean bereziki, eraldaketa digitalak duen egiturazko ondorioa, eragina baitu kulturako industrietan eta kultura-ondasun eta zerbitzuak eskuratzean, eta, aldi berean, denontzako kulturarako sarbidea hazteko eta ondarearen ezagutza, dokumentazio, zaintza, sustapen eta kudeaketarako ikuspegiak zabaltzen baititu eta sormena eta berrikuntza sustatzen baititu. Gainera, kezka adierazten dugu horrek planteatzen dituen erronken-

gatik, gero eta arrisku handiagoengatik, hala nola kultura-ondasun eta zerbitzuen fluxuaren munduko desoreka areagotzea eta sareko kultura- eta hizkuntzaaniztasuna pobretzea, adimen artifizialeko sistemei eta algoritmoak behar adina araututa ez egoteari lotuta. Kezka adierazten dugu, halaber, kulturarako sarbidedesberdinkeriatik, artisten, profesionalen eta kulturako beste eragileen bidegabeko ordainsariengatik, kultura-ondasun eta -zerbitzuen mundu-mailako trukean dauden desberdinkeria handiengatik, batez ere, munduko kultura-plataformak desberdin pilatuta egoteagatik gertatzen direnengatik.

II. Ekintzarako deialdia

9. Berresten dugu kultura-aniztasuna babesteko eta sustatzeko gure konpromisoa, herrien identitatearen funts gisa, baita UNESCOk kulturaren alorrean egindako konbentzio, gomendio eta adierazpen guztien printzipio sortzaile gisa ere, giza duintasuna eta giza eskubide guztiak errespetatzetik bereizi ezin dena, kultura-ondarean —ezagutza-sistemak, praktikak, objektuak eta gune kulturalak barne— eta hizkuntza-aniztasunean haragiztatuta baitaude; eta ikuspegi horretan berriro diogu banako eta taldeko konpromisoa dugula, etorkizuneko belaunaldien izenean, kultura-sektore osoa zaindu, babestu eta sustatzeko, baita kultura-ondare materiala nahiz immateriala ere. Inperatibo etikoa da hori, eskualde guztietan ondarearen ekitatea, oreka geografikoa eta ondarearen ordezkarritasuna hobetu behar dira, kultura- eta sormenindustriak sustatu, kultura-aniztasunari eta -pluraltasunari eusteko funtsezko dimentsioak direlako, eta horiek errespetatzea bakera-ko pizgarria da gaur egun inoiz baino gehiago, bai eta mundu jasangarriagoa eraikitzeko sormenezko eta berrikuntzako faktorea ere.

10. Hitzematen dugu, ondorioz, giza eskubide guztiak errespetatzeko eta baliatzeko inguru egokia sustatuko dugula, batez ere kultura-eskubideak —banakoak eta taldekoak— kulturako esparru guztietan, kultura-ondaretik kultura- eta sorkuntza-sektoreetara arte, inguru digitala barne. Helburu nagusia mundu bidezkoagoa eta ekitatiboagoa eraikitzea eta desberdinkeriak murriztea da, batez ere emakume, gazte, haur, herri indigena, Afrikarren ondorengo, desgaitasunen bat duten pertsona eta talde zaurgarrienak. Horretarako, bereziki i) kulturarako eta kultura-bizitzan eta onuretan parte hartzeko sarbidea sustatuko dugu, inperatibo etiko, sozial eta ekonomiko gisa; ii) artisten, profesionalen eta kulturako beste eragileen eskubide ekonomiko eta sozialak indartuko ditugu, haien mugikortasuna erraztuz eta haien izaera defendatuz, besteak beste jabetza intelektuala indartzearen bidez; iii) askatasun artistikoa eta adierazpen-askatasuna babestu eta sustatuko ditugu; iv) kultura-erakunde aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna babestu eta bultzatuko ditugu; v) herriek eta erkidegoek beren identitate- eta kultura-ondarea (herri indigenen kultura-adierazpenak barne) izateko eskubidea defendatutako duten

esparru juridikoak eta politika publikoak ezarriko ditugu, eta vi) kultura-ondareen babesa, inguru eta leheneratzea sustatuko duten ahaleginak gehituko ditugu, erasandako biztanleriari kontsultatuta eta aurrez eta informatu ondoren askatasun osoz baimena emanda.

11. Defendatzen dugu politika publikoetan kultura sistematikoki finkatzea, estrategiak eta garapen-esparruak egokituz nazioarteko, eskualdeko, eskualde azpiko, nazioko eta tokiko planoetan, baita Nazio Batuen beste funts eta programetako politiketan ere, erresilientziaren, gizarteratzearen eta hazkunde ekonomikoaren ardatz eta motor izan dadin, hezkuntzatik, enplegutik —bereziki emakume eta gazteentzat—, osasunetik eta pobrezia murriztu arteko ongizate emozionaletik, genero-berdintasunetik, ingurumen-jasangarritasunetik, turismotik, merkataritzatik eta garraiotik, eta,aldi berean, tesuinguru bakoitzerako behar diren garapen ekonomiko eta sozialeko ereduak sustatuz.

12. Dei egiten dugu gure kultura-politikak egokitu daitezela erronka garaikideetara, UNESCOren kultura-gaietarako konbentzioak eta gomendioak modu eraginkorrean ezartzearen bidez. Horretarako, bereziki sustatuko dugu alde interesdunen parte-hartze sistematiagoa, hasi nazioko eta tokiko eragileekin (UNESCOren hiri sortzaileen sarearen bidez bereziki) eta kultura-erakunde, gizarte zibil, sare profesional eta adituetara arte, baita komunitate interesdunak ere, Garapen Jasangarriko Kulturari buruzko UNESCOren erakunde arteko plataformaren bidez esaterako, eta jardunbide egokien trukea bultzatuko dugu, haren potentzial eraldatzailea aprobetxatzeko. Horrez gain, zinez egiten dugu dei, kulturaren finantzazioa zaindu eta indartu dadila, epe ertainean aurrekontu nazional bat esleitze aldera eta aurrekontu hori pixkanaka hazi dadila kulturasektoreko behar eta aukera berriak asetzeko.

13. Azpiratzen dugu kulturaren eta hezkuntzaren arteko sinergiak indartzearen garrantzia, eta testuingurura egokitutako hezkuntzaren beharra aitortzen dugu, kultura-ondarea, historia eta ezagutza tradizionalak bilduko dituen xede hauekin: i) ikaskuntzaren emaitzak zabaltzea eta hezkuntzaren kalitatea hobetzea —bereziki gazteentzat— eta kultura-aniztasunaren, eleaniztasunaren, heziketa artistikoaren eta alfabetizazio digitalaren balorazioa hobetzea, batez ere hezkuntzako curriculumetan eta bizialdiko ikaskuntzan, baita adimen artifizialaren bidez ere; ii) heziketa formalean, informalean eta ez-formalean kultura sistematikoki sar dadila sustatzea, bereziki azpiratuz gizarteko atal guztiek ezagutzen transmisioan egiten duten ekarpena; iii) kulturaren sektorean irakaskuntza eta prestakuntza tekniko eta profesionala babestea, politika publikoetan egiturazko inbertsioak eginda, eskumenen beharrezko egokitzapena bultzatzeko, enplegua sustatze aldera; iv) museoen, sorkuntza-zentroen, liburutegien, artxiboen eta kultura-erakundeen funtzio hezitzaile eta sozialean inbertitzea. Zentzu horretan, kultura eta heziketa artistikoari buruzko UNESCOren esparru bat egitea babesten dugu, kultura-sek-

toreko eboluzioak sartzeko, dagokion alde interesdunekin lankidetzan, UNESCOren batzorde nazionalekin eta adituen sareekin, esaterako.

14. Errepikatzen dugu kultura-ondarea, materiala eta immateriala babesteko gure deialdia, baita kultura-adierazpenak babesteko ere, bereziki krisi-garaietan, muturreko fenomeno klimatikoak eta arrisku naturalak barne. Gaitzesten ditugu gatazka armatueta kulturaren aurka bideratutako ekintzak eta kultura-ondasunak edo horien inguruak xede militarretarako erabiltzea. Babesten ditugu esparru horretan nazioarteko zuzenbideko arauak modu eraginkorrean aplikatzeko ahaleginak, batez ere arau hauei dagokienez: 1954ko UNESCOren konbentzioa eta bere bi protokoloak (1954 eta 1999); 1970, 1972, 2001, 2003 eta 2005eko konbentzioak; 1995eko UNIDROIT hitzarmena; eta Ondare kulturala nahita suntsitzeari buruzko UNESCOren adierazpena (2003). Horretarako, bereziki, larrialdi-egoeretako ekintza indartu behar da, inperatibo etiko eta segurtasun-inperatibo gisa, delinkuentzia antolatuaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurka borrokatzeko. Hori guztia Nazio Batuen dagozkion ebazpenak oinarri hartuta, eta erakunde eta nazioarteko organismo interesdun guztiak eta kulturaren arloan UNESCOren konbentzioei lotuta dauzkagun mekanismo teknikoak eta finantza-mekanismoak bilduta. Horiek horrela, laguntza emango diegu herrialdeei beren babes-ahaleginetan, eta nazioarteko solidaritatea eta berpizte-estrategia nazionalak sustatuko ditugu.

15. Azpiratzen dugu kultura-ondarea eta sormena klima-aldaketari buruzko nazioarteko eztabaidetan txertatzearen garrantzia, aintzat hartuta ondarearen forma guztiak eta kulturaadierazpenak babesteari eta ekintza klimatikorako kulturaren eginkizuna aitortzeari begira duten oihartzun multidimentsionala; bereziki ezagutza-sistema tradizionalen eta indigenen bidez. Horrenbestez, UNESCOri eskatzen diogu gaiari buruzko gidalerro operatiboak egin ditzala, kulturaren arloan UNESCOren konbentzio eta gomendioen esparruan —bereziki 1972, 2001, 2003 eta 2005eko UNESCOren konbentzioak, eta 2011 eta 2015eko UNESCOren gomendioak—. Hori guztia dagozkion nazioarteko mekanismo, esparru eta organizazioekiko sinergian, hala nola honako hauek: Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa (CMNUCC), Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena (CDB), Munduko Metereologia Erakundea (OMM), Nazio Batuen Elidura eta Nekazaritza Erakundea (FAO), Nazio Batuen Ingurumen Programa (PNUMA), Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea (IPCC) eta ondare kulturean eta naturalean klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko mekanismo malgua (2020). Horren guztiaren helburua da estatu kideei laguntzea kulturako sektore osoan eragina duten muturreko inpaktu klimatikoari aurre egiteko estrategiak eta politikak eratzen, kultura-ondare osoa barne hartuta, baita urpeko ondarea eta naturaondarea, kultura- eta sormen-industriari eta bizi-bitartekoak ere. Halaber, horren guztiaren bidez, kultura-sektorearen

karbono-aztarna murrizteari buruzko estatu kideen eztabaidan sakondu nahi da.

16. Nabarmentzen dugu kultura-ondarearen legez kontrako trafikoaren aurka borrokatzeko gure konpromisoa, 1970eko UNESCOren konbentzioa eta bere mekanismoak eraginkortasunez aplikatzen direla bermatzeko. Horretarako, nazioarteko kooperazioa indartu behar da bazkide garrantzitsu guztiekin —INTERPOL, Aduanen Mundu Erakundea (OMA), UNIDROIT, Museoen Nazioarteko Kontseilua (ICOM), Droga eta Delituen Aurkako Nazio Batuen Bulegoa (UNODC) eta artearen merkaturak—. Halaber, UNESCOri eskatzen diogu mundu-mailako erantzuna indartu dezala, urrats hauen bidez: i) sustapena eta lana indartzea legez kontrako trafikoak herrien memorian, identitatean eta etorkizunean dituen ondorioak arintzeko; ii) legedi nazionaletan zehapen penalak edo administratiiboak txerta daitezela sustatzea; iii) herrialde guztietan gaitasun nazionalak eta tokikoak gara daitezela bultzatzea; iv) artearen merkaturako eragileekiko kooperazio eraginkor eta estuagoa sustatzea, bereziki kultura-ondasunen jatorri-ziurtagiriaren kodifikazioa indartzeari eta museo eta bildumagile pribatuek espezifikatu gabeko jatorridun objektuak eskuratu daitezela prebenitzeari dagokienez, eta v) alde interesdun guztien eta, oro har, publiko orokorraren konpromisoa, mobilizazioa eta koordinazioa zaintzea, bereziki teknologia digitalen eta sareko plataformen bidez —aintzat hartuta kultura-ondasunen sareko merkataritzak gora egin duela—, eta sentsibilizazioa sustatuta.

17. Eskatzen dugu nazioarteko elkarrizketa irekia eta inklusiboa has dadila kultura-ondasunak, legez kanpo esportatutako ondasunak barne, UNESCOren babespean jatorrizko herrialdeetara eraman eta itzuli daitezela, baita 1970eko UNESCOren konbentzioaren esparrutik kanpo daudenetara ere. Izan ere, ezinbesteko inperatibo etikoa da herriek eta komunitateek beren kultura-ondareaz gozatzeko eskubidea bermatzeko. Gainera, aintzat hartuta eragindako herrialdeek gero eta erreklamazio gehiago egiten dituztela, gai garrantzitsua da kultura-ondarearen belaunaldi arteko transmisioa eta gizarte-kohesioa indartzeko. UNESCOri eskatzen diogu kultura-ondasunak jatorrizko herrialdeetara eramateko edo, zilegi ez den moduan lortu direnean, itzultzeko dauden esparru juridikoak eta politikak eraginkortasunez aplikatu daitezela sustatzea; Kultura-ondasunak jatorrizko herrialdeetara eramateko edo, zilegi ez den moduan lortu direnean, itzultzeko UNESCOren Gobernuarteko Batzordearen bitartekotza proaktiboaren bidez. Halaber, eskatzen diogu herrialdeei lagun diezaiela kultura-ondasunak *in situ* mantendu eta kudeatzen. Horretarako, heziketa-ikuspegiak sustatu eta gaitasunak garatu behar dira, kultura-alderdiak aintzat hartzen dituztenak, bereziki museotan eta kultura-erakundeetan. Horrez gain, UNESCOri eskatzen diogu, kultura-ondasunaren legez kontrako trafikoaren aurka borrokatzeko esparruan Nazio Batuen organismo nagusia den heinean, neurri eta ekimen zehatzak proposatu ditzala goranzko joera duen fenomeno horri aurre egiteko, bai eta

artearen merkaturako eragileak, museoak eta bildumagile pribatuak inplikatu ditzala ere. Eta, azkenik, Kultura Ondasunen Merkatarientzako Nazioarteko Kode Etikoreen testu eguneratu bat onets dezala.

18. Prest gaudu estatu kideetan ekonomia sortzailea sustatze aldera kultura- eta sormen-sektore jasangarrien garapena bultzatzeko, 2005eko UNESCOren konbentzioa eta 1980ko UNESCOren gomendioa eraginkortasunez aplikatuta. Kulturaren arloko profesionalen eta artisten eskubide sozial eta ekonomikoak bermatu nahi ditugu, mugikortasuna erraztearen eta plataforma digitalak hobeto arautzearen bidez, baita azken horiek elkarrizketa parte-hartzaile batean inplikatura ere. UNESCOri erregutzen diogu estatu kideei lagun diezaiela eraldaketa digitala aprobetxatzen kultura-sektorean, Ingurune Digitalari buruzko Konbentzioa aplikatzeko Orientabide Praktikoak (2017) eta Adimen Artifizialaren Etikari buruzko Gomendioko kulturari buruzko xedapenak (2021) oinarri hartuta. Hauek dira horren guztiaren helburuak: i) kulturamerkaturarako sarbide ekitatiboa erraztea; ii) politika eta esparru arautzaileak formulatu, sortu eta aplikatzea, baita ingurune digitalean kultura-ondasun eta -zerbitzuen ekoizpena, hedapena eta kontsumoa sustatzeko ekintza-planak ere, bereziki alde interesdun guztien artean elkarrizketa egituratua sustatuta —sektore pribatua, dagozkion gobernu kanpoko erakundeak eta gobernu artekoak, eta, batez ere, Munduko Merkataritza Erakundea (OMC), Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundea (OMPI), Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (UNCTAD) eta Nazioarteko Lan Erakundea (OIT), baita munduko plataforma digitalak eta Interneteko hornitzaileak ere—, eta iii) kultura-enpleguaren aldeko teknologia digitalak aprobetxatzeko gaitasunak gartztea, baita kultura-ondarearen zaintza, sustapena, digitalizazioa eta inbentarioa hobetzekoak ere, bereziki EFTParen bidez eta Hegoalde-Hegoalde eta Iparralde-Hegoalde kooperazioa sustatuta.

Gu, kultura ministroak, Mexikon bildu gara mundu osorako koiuntura kritikoan, eta hitza ematen dugu indartutako multilateralismoaren alde, kultura aitortu dezan mundu-mailako ondasun publiko gisa, berezko balioa duena garapen jasangarria erraztu eta sustatzeko. Gure egiten dugu gure erantzukizunaren irismena, UNESCOri eskatzen diogu honako orientabide estrategiko hauek batera ezartzeko lan egin dezala, kulturari buruz duen aginte global eta espezializatuan eta bere arazko tresna eta programetan oinarrituta:

19. Dei egiten diogu Nazio Batuetako idazkari nagusiari mundu-mailako ondasun publiko izaera eman diezaiola kulturari, irmotasunez eta berezko xede gisa sar dezala garapenerako agendan 2030etik aurrera. Horretarako eskatzen diogu UNESCOren zuzendari nagusiari abian jar dezala kontsulta zabal bat munduko ondare publiko gisa kulturak gure gizarteetan duen dimentsio anitzeko ondorioei buruz, bai eta kontsulta horretan parte har dezatela ere estatu kideek, gizarte zibilak,

mundu akademikoak eta sektore pribatuak, eta lan egin dezala Nazio Batuen Etorkizunerako Goi Bileran (2024rako aurreikusia) kultura sar dadin UNESCOren oinarritzko aginduekin bat etorriz, hau da, gizarte-justiziaren eta giza duintasunaren bidez "bakea eraikitzea gizon-emakumeen buruetan".

20. Kultura munduko ondasun publiko gisa kokatzen laguntzeko, "Gure baterako agenda" izeneko txostena eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsitako Nazio Batuen 75. urtemugako Adierazpena gehiago ezartzeko eta etorkizuneko politika eta estrategia kultural eta publikoak eta UNESCOren ekintza programatikoa formulatzen laguntzeko, azpimarratzen dugu kulturaren osoko azterketa, jarraipen eta neurketa egiteko tresnak eta mekanismoak koordinatzeko, indartzeko eta garatzeko beharra dagoela, eta UNESCOren zuzendari nagusiari dei egiten diogu azterlan kontzeptualak egin ditzan kulturak bere dimentsio guztietan dituen ondorioez, dagozkien datuez gain, bai eta mundu-mailako txosten zehatz bat egin dezala ere kultura-politikei buruz lau urtean behin estatu kideek emandako informazioa, datuak eta adierazleak oinarri hartuta, batez ere kulturaren alorrean erakundeak dituen arauzko tresna guztien aldiroko txostenen esparruan, baita eskura dituen

programak eta esparru estatistikoak eta adierazleak oinarri hartuta ere.

21. Gure iritziz oso garrantzitsua da ministerio-mailan elkar-tzea kultura-arloko aurrerapenak, ondorioak eta aukerak neurtzeko, eta, horretarako, UNESCOri dei egiten diogu 2025etik aurrera lau urtean behin kultura-politikei buruzko Mundu Foru bat antola dezan, egongo diren prozedura eta mekanismo egokiekin, hala, zerikusia duten eragile guztien elkarriketa eraikitzaile eta inklusiboaren bidez kultura-politikarako lehentasunezko esparruak tratatzeko. Horrela, indartu egingo dira ekintza multilateral eta herrien arteko lankidetzak eta elkartasuna, eta lagungarria izango da UNESCOren lan-ildo estrategikoentzat, bere zuzenbide-organoen esparruan, kultura-politiken mundu txosteneko ondorioak oinarri hartuta.

22. Amaitzeko, eskatzen diogu UNESCOren zuzendari nagusiari neurri zehatzen plan bat eta egutegi bat egin ditzala, adierazpen honetako xedapenak azkarrago ezartzeko erakundearen epe ertaineko estrategiaren, programaren eta aurrekontuaren esparruan, eta, horrez gain, elkarriketa eraginkorra izan dezala UNESCOko estatu kideekin eta nahitaezko alde interesdunekin, eta aldiro eman diezaiela estatu kideei ezarpen horren inguruko lorpenen eta erronken berri.

2. ERANSKINA

Eskubide kulturelei eta garapen jasangarriari egiten zaien ekarpena

Begoña Guzmán Sánchez
Gizarte-eraldaketarako kulturaren arduraduna
UNESCO Etxea – Euskadiko UNESCO Elkarte
b.guzman@unescoetxea.org

I. Garapenaren kulturak

Egilearen iritzian arabera, garapenak helburu izan behar du gizarte bidezkoagoak, berdinzaleagoak, baketsuagoak, feministagoak eta sortzaileagoak elkarrekin eraikitzea, aldatetaren eta eraldaketaren bultzatzaile gisa hartuta kultura, hezkuntza, ezagutza zientifikoa, espiritu kritikoa, elkar ulertzea, jakintza hedatzea eta giza eskubideak.

2030 Agenda aukera bat da Euskadirentzat, zeren guztiz bat baitator gure lehentasunekin: pertsona guztiei funtsezko zerbitzuak bermatzen dizkien giza garapena, eta kalitate handiagoko enplegu-aukerak sortzen dituen hazkunde jasangarria. Horixe da hazkunde eta gizarte-ongizatearen euskal eredu, eta orain indartu egiten da Euskadi Basque Country 2030 Agenda honen aurkezpenarekin. (...) Nazio Batuen Erakundeak munduaz duen ikuspegia konpartitzen dugu: pertsonengan zentratutako mundu bat, planetaren babesarekin eta bizikidetzak baketsuarekin konprometitua, aliantza- edo itun- eredu baten bitartez oportutasuna lortzeko gaitasuna duena. Agenda honek Euskadiren etorkizuneko ikuspegia definitzen du, bai tokiko jokalekuan eta bai jokaleku globalean. Erronka bat da, beraz, eta geuk "auzolan" espirituarekin erantzun behar diogu, hau da, guztion ongia lortzera zuzendutako elkarlanarekin.

Hala dio Iñigo Urkullu lehendakariak *Euskadi Basque Country 2030 Agendaren* hitzaurrean.

* *Auzolan (herri-lana esan nahi duen euskal hitza).*

XI. Legegintzaldiko (2016/2020) Gobernu Programaren ardatz nagusietako bat Giza Garapen Jasangarria izan zen. 2018ko apirilaren 10ean, *Euskadi Basque Country 2030 Lehen Agenda* onartu zuen Gobernu Kontseiluak, eta Gobernu Programako 93 konpromisorekin lotu zituen 2030 Agendaren 17 helburuak eta 169 helmugak.

2030 Agenda Euskadiko sare sozial eta ekonomikoan dauden sektore guztietan sustatzeko asmoz, 2019an talde pilotu bat sortzea bultzatu zuen Eusko Jaurlaritzak, EUSKADI 2030 GUNE izenekoa. Talde horretan 17 erakunde daude, eta hainbat sektore ordezkatzeko dituzte, hala nola hezkuntza, industria-sektorea, elkargo profesionalak, erakunde publikoak, hirugarren sektore sozialeko erakundeak eta zentro teknologikoak, eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren esparruak hartzen dituzte guztien artean.

Talde pilotu horrek izan zuen lehen eginkizunetako bat izan zen GJHak Euskadiko testuinguru ekonomiko, sozial eta ingurumenekora eramateko modua ezartzea, sektore guztien ikuspegia kontuan hartuta eta haien ezagutza eta esperientzia eskainita, horrela, *Euskal Erakundeentzako Gida Praktikoak. Nola ezarri 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuei lagundu* gidaren bidez, orientazioa eta tresnak eman ahal izateko, EAEko edozein erakundek ekin diezaion 2030 Agendari.

Legegintzaldi honetan (2020-2024) Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia sortu zen, Lehendakariaren egitura instituzionalaren barruan, 2030 Agendarekiko konpromisoarekin lotutako estrategiak eta jarduerak dinamizatu eta koordinatzeko, Eusko Jaurlaritzaren barruan eta Eusko Jaurlaritzatik.

Idazkaritza horri dagokio gizarte-egoera berriak aztertzea, sail arteko eta erakunde arteko jarduerarako proposamen berriak identifikatzea eta koordinatzea, esperientzia pilotuak bultzatzea, aliantza instituzionalak, sozialak eta nazioartekoak dinamizatzea, eta politika publikoen esparru hori jendartearen zabaltzea eta sustatzea.

Euskal erakunde guztiek lehentasun gorena ematen diote eraldaketarako eta elkartasunerako konpromiso global eta tokiko horri. Eusko Jaurlaritzak *2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa* onartu du, legegintzaldi honetan zehar arlo horretan izango duen jarduera planifikatzeko, eta proposatu du 2030 Agenda aurrerapenerako eta berdintasunerako gizarte-kontratu gisa partekatu ahal izatea Euskadin.

Konpromiso eragileak eta zazpi proiektu emblematiko definitu dira *Programa* horretan.

<https://www.euskadi.eus/programa-vasco-de-prioridades-de-la-agenda-2030/web01-a2lehet/es/>

2030 Agendaren parte izan behar dute eta haren sustapenaren arduradun sentitu behar dute lurraldean dauden eragile, erakunde eta sektore guztiek. EAEko Foru Aldundiekiko eta Udalekiko konpromiso instituzionala bultzatzen da. 2030 Agendaren "lokalizazioa" sustatzen ari da, eta *Tokiko 2030 Agenda – Udalsarea 2030* ekimena azpimarratu behar da. Ekimen horretan, 2021-2024 urteetarako tokiko sustapeneko 15 proiektu identifikatu dira, garapen sozialari, ekonomikoari, ingurumenari eta gobernantzarri lotutako lau helburu handiri laguntzeko.

Konpromiso soziala ere bultzatzen ari da. Gizartea eta bertako gizarte-eragileak ere 2030 Agendarekiko konpromisoaren protagonista dira. Hona hemen azpimarratu beharreko adibide batzuk:

Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantza 2030, Arabako Foru Aldundiak sustatua. Aliantza horrek ikusgai jarri nahi du eta aintzatetsi egin nahi du hainbat eragilek lurraldean egiten duten lana eta hartu duten konpromisoa planetarekiko errespetuzko oparotasunaren alde, eta ahaleginak batu nahi ditu lurralde gisa aurrera egiteko, betiere inor atzean utzi gabe.

Agendak konpromiso komun eta unibertatsala eskatzen du, eta Arabak berariazko erronkei egin behar die aurre garapen jasangarriaren bilaketa globalean. Hori dela eta, baliabideen eta jarduera ekonomikoaren arloan dituen eskumenen esparruan, bere helmuga propioak zehazten ditu, Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) atxikita. Besteak beste, ALIANTZAn, elkar hartuta, lan egiteko konpromisoa hartu dute, inor atzean utziko ez duen Araba bat eraikitzeko.

Aliantza horretan daude administrazio publikoak, hirugarren sektorea, sektore pribatua, ikastetxeak, kultura-eragileak eta sareak, besteak beste. Arabako Aliantza horren parte da UNESCO Etxea, eta 4. eta 16. GJHtarako lantaldeetan hartzen du parte.

<https://ods.araba.eus/es/>

EHU 2030 Agenda. Euskal Herriko Unibertatsitate Publikoaren estrategia da, GJHei egiten zaien ekarpena zehazten eta neur-tzen duena, prestakuntza, ikerketa eta ezagutza-transferentzia baliatuta.

<https://www.ehu.eus/es/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren esparruan, Euskadiko Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroa sortu da, sail arteko eta erakunde arteko gobernanta-mekanismoak ezartzeko eta lankidetzeta eta parte-hartze publiko, pribatu eta soziala bultzatzeko. Eusko Jaurlaritzako Sailen, hiru Foru Aldundien, EUDEL-en (Euskadiko Udalen Elkartea) eta hiriburuetakako udalen topaguneak eratzen dira foro horretan, bai eta lankidetzeta publiko-pribatuaren ordezkari diren erakundeek ere, honako hauen bidez: Basque Center for Climate Change (BC3) zentroa; Basque Research and Technology Alliance (BRTA) Zientzia eta Teknologia Partzuergoa, eta ACLIMA, Basque Environment Cluster klusterra.

Eratzeko bileran, Foroaren Lehendakaritzaren Lehen Adierazpena aurkeztu zuen lehendakariak, "2030 Agenda: beharra eta aukera. Euskadiren konpromisoa" izenekoa. Adierazpen horrek azpimarratzen du koordinazioa eta hitzarmena optimizatzea dela Foroaren lehen helburua, 2030 Agendaren gobernanta-jardunbide on bat ezarri ahal izateko. Hori oinarri hartuta, lau izan ziren aurreikusitako erronka handiak:

- Klima-aldaketari buruzko nazioarteko hitzarmenei balio erantsia ematea. Anbizioa handitzea zenbait helburutan, hala nola deskarbonizazioa, berotegi-efektuko gasak

deuseztatzea, karbono-neutraltasuna, energia berriztagarriak eta biodibertsitatea.

- Hiri Agenda bat koordinatzea eta sustatzea, ekosistema berde eta inklusiboko hiria, mugikortasuna eta hirigintza bultzatzeko.
- Ekitatean oinarritutako eraldaketa ekonomiko-digital inklusiboaren erronkei irtenbideak emango dizkieten proiektu eta ekimen teknologikoak identifikatzea, parte-hartzea eta bultzatzea.
- Elkarlanean aritzea giza duintasuna eta giza eskubideak defendatzeko, pobrezia eta bazterkeria desagerrarazteko, genero-berdintasuna bermatzeko eta erronka demografikoari batera erantzuteko.

Foroaren egiturak Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta bost lantalde ditu: Gobernantza, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda, Eraldaketa Soziala, Eraldaketa Energetiko-klimatikoa eta Eraldaketa Ekonomiko-digitala.

Lantalde bakoitzerako lan-saioen egutegia, ibilbide-orria eta urtero landu beharreko helburu zehatzak ditu Foroak. Hala-xe daude jasota *Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroaren 2022ko kudeaketa-planean*.

<https://www.euskadi.eus/foro-multiagente/web01-a2lehetres/>

Era berean, 2017az geroztik, Eusko Jaurlaritzak Borondatezko Txostenak argitaratzen ditu Euskadik 2030 Agendari egiten dion ekarpenari buruz, eta 2022an GJHei eta 2030 Agenda Bonuen Programari buruzko informaziorako eta dibulgaziorako urteko kanpaina egin du, dibulgazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak diruz laguntzeko, eta hezkuntza-lantalde bat sortu du tresna eta baliabide pedagogikoak sortzeko.

II. Garapen jasangarrirako helburuen dimentsio kulturalak

Euskadi Basque Country 2030 Agendaren hitzaurrean esaten denez, Agendan planteatzen diren erronka globalei tokiko esparrutik aurre egiteko, *auzolanaren espirituarekin* egingo da lan, *hau da, guztion ongia lortzera zuzendutako elkarlanarekin*.

Auzolana herritarren arteko elkarlana da, komunitatearen mesederako egiten dena, eta erantzunkidetasunean, parte-hartzean eta lankidetzan oinarritzen da. Baliabide komun ukigarri eta ukiezinak mantendu eta garatzeko balio izateaz gain, komunitateko kideen artean kidetasun-sentimendua eta aintzatespena indartzen laguntzen du. Funtsean landa-munduan badu ere jatorria, gaur egun hainbat herritan eta udalerritan dirau auzolanak, eta haietan ikus daiteke zer fruitu ematen dituen.

Auzolanaren balioaren aipamen horrek, berezko izateko eta egiteko modu horrek, argi eta garbi erakusten du kultura gure izatearen parte dela eta gure bizimoduak taxutzen dituela: bere baitan hartzen ditu pertsonen beren gizatasuna

adierazteko dituzten balioak, sinesmenak, uste sendoak, giza adierazkortasuna, hizkuntzak, jakintzak eta arteak, tradizioak, elkarreragiteko moduak, erakundeak eta bizimoduak. Gizar-tearen balioetan oinarrituta eraikitzen da gainerako guztia, eta balio horiek adierazteko modua da kultura. Ez da harrizkoa, beraz, *auzolanaren* espiritutik abiatuta aurre egin nahi izatea lurraldeko erronkei.

Kultura-balioetan, tokiko prozesuetan eta garapen jasangarria egoera espezifikotara ekartzean eragiteko modu bat da, zalantzarik gabe.

Euskadi Basque Country 2030 Lehen Agenda egin zenetik Eusko Jaurlaritzak GJHak betetzeko hartutako egungo konpromisoetara, aurrerapen handia nabari da kultura- eta hizkuntza- eskubideekin lotutako gaietan.

Lehenengo dokumentu horretan, kultura-aniztasunaren, kulturartekotasunaren, eleaniztasunaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen sustapena bultzatzen da, eta alderdi horiek lotura handia dute kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzearekin eta pertsona guztientzako etengabeko ikas-kuntzarako aukerak sustatzearekin (4. GJH).

Era berean, dibertsitatearen kudeaketa positiboa egin beharra jasotzen da, gizarte-kohesio handiagoa sustatzeko, eta migratzaileak, errefuxiatuak edo erlijio-komunitate desberdinetakoak izateagatik eskubideak urrututa dituzten pertsonen artean desberdintasunak murrizteko (10. GJH). Horretarako, Eusko Jaurlaritzak Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan Jarduteko Plana dauka kudeaketa hori aurrera eramateko tresna gisa. Era berean, garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak (16. GJH) eraikitzen laguntzen du, kultura-aniztasunaren balio positiboak eta arrazakeriaren eta xenofobiaren prebentzioari buruzko sentsibilizazio-programak bultzatzen baititu.

Era berean, erronka gisa planteatzen da kultura eta kultura-ondarea dinamizatzeke eta sustatzeko estrategia bultzatzea eta euskararen erabilera sustatzea 11. GJH betetzeko ekarpen gisa: hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzeko ekarpen gisa, alegia. Horretarako, bi tresna identifikatu dira: "Euskal Kultura Auzolanean 2020" Kulturaren Euskal Plana, eta Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020.

Egungo legegintzaldian (2020-2024) Eusko Jaurlaritzaren Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia sortu da, eta GJHak betetzeko konpromisoak eta tresnak garatu dira.

Aurrerapen horretan nabarmendu behar da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari lotutako konpromiso eta ekimen zehatzak agertzen direla, 13 konpromiso eta 74 ekimen guztira, besteak beste honako gai hauek jorratzen dituztenak:

- Euskal sortzaileen, artisten eta kulturako profesionalen eskubide sozioekonomikoak hobetzea.

- Emakumeen ahalduntzea bultzatzea sorkuntzaren eta kulturaren esparruan.
- Emakumeek iruditeria kolektiboa eraikitzeke egiten duten ekarpenaren garrantzia ikusaraztea.
- Kulturako profesionalen ibilbide profesionala eta prestakuntza-ibilbidea baliozkotzea.
- Haurren, nerabeen eta gazteen sormen-gaitasunak sustatzea eta arte-diziplinekiko harreman goiztiarra bultzatzea, hezkuntza-sisteman sorkuntza artistikoa eta kultura- la ezagutzeko programen bidez.
- Ondare immateriala, dokumentala eta industrialia babestea, balioestea eta gizarteratzea.
- Museoen, arte-zentroen, prestakuntza-espazioen, sorkuntza- eta hausnarketa-espazioen, sare sortzailearen eta abarren arteko lankidetzaren areagotzea.
- Digitalizazioa eta berrikuntza bultzatzea;
- Euskararen Agenda estrategikoa onartzea eta garatzea, eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartzea.

Aurrerapen argia egin da 2030 Agendaren dimentsio kulturari heltzeko eta kultura- eta hizkuntza-eskubideak mahai gainean jartzeko, hainbat ikuspuntutatik eta jarduera-eremutatik. Zalantzarik gabe, premiazkoa da Euskadiko kultura- eta sormen-sektorea 2030 Agendarekiko sentsibilizatzea eta gaitzea; izan ere, sektore hori da orain arte Agendatik at gehien egon denetako bat, baina, horrekin batean, kultura- eta hizkuntza-eskubideei buruz kontzientzia handiagoa hartzen hasi behar du, eta eskubide horiek bere lengoian eta jardueran txertatzen hasi, jardunbide egokiak sortzen hasteko.

Aurten, Ondareari eta Jasangarritasunari eskainiak dira Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak. Euskal administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak), hirugarren sektoreak eta kultura-erakundeek bat egingo dute ondareak gizarte jasangarrien eraikuntzan duen zeregina ikusarazteko jardunaldi horiekin.

UNESCO Etxean, 2030 Agendaren esparruan kolektibo zaurgarrien giza eskubideak jorratzen dituen *Todas Juntas | Guztiok Batera* taldearen bultzatzaile gisa, AMUGE - Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartearekin elkarlanean ari gara kultura- eta hizkuntza-eskubideen inguruan sentsibilizatzeke eta gaitzeke. AMUGE Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartearen egitekoa da, oro har, ijito komunitatearen eskubideak eta garapen osoa defendatzea eta sustatzea, eta, bereziki, EAEko emakume ijitoentzako arreta, sustapena eta ahalduntzea, beren etnia- eta kultura-berezitasuna galdu gabe.

<https://www.unescoetxea.org/dokumentuak/todasjuntas-informe.pdf>